

udaltop

UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN
TOPAKETAK



IZENBURUA:

Talde-lana: ekimenari ekarpenak

Euskarak 365 egun: hizkuntza-ohiturak eta gizarte aktibazioa Euskal Herrian eta elkarrekin lantzeko proposamen berria

EGILEA:

Elhuyar Aholkularitza

DATA:

2017/06/29



Aurkibidea

1. Sarrera	3
2. Ekimenak nola sentiarazten nau?	4
3. Talde bakoitzak aukeratutako ekarpenak	5
Eranskina: taldeetan egindako ekarpen guztiak	10



1. Sarrera

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politika Sailburuordetzak eta Topaguneak elkarrekin landutako proposamena aurkeztu ostean, talde-lanari edo ekarpen-lanari heldu genion. Horretarako, 15 lantalde sortu genituen eta taldeak egiteko irizpide nagusiak bi izan ziren: eragile-mota (gizarte-eragileak, euskara-teknikariak eta politikariak) eta lurraldea.

Talde-lanak **bi helburu** izan zituen:

- **Ekimenari tenperatura** hartzea.
- Ekimenari **ekarpenak egitea**.

Ekimenari tenperatura hartzeko, taldekide bakoitzari **hitz batean** honako galdera honi erantzuteko eskatu genion: **Nola sentiarazten nau ekimenak?**

Hitz guztiak “word clouds” aplikazio batean sartu genituen eta bertatik ateratako argazkian ikusi ahal izan genuen saiora gerturatuko pertsonak zer nolako harrera egin zioten proposamenari.

Ekimenari ekarpenak egiteko, aldiz, norberak egindako ekarpenak eta hausnarketak konpartitu eta multzokatu egin genituen. Ondoren, talde bakoitzak bi ekarpen aukeratu zituen.

Beraz, 3. atalean talde bakoitzak aukeraturako ekarpenak jaso ditugu, eranskinean, berriz, taldeetan egindako ekarpen guztiak. Izan ere, 50 minutu baino ez genituen izan talde-lanerako eta, hala ere, ekarpen ugari izan ziren. Aberasgarria iruditu zaigu ekarpen guzti-guztiak eranskinean jasotzea eta guztion eskura jartzea, beraz, hortxe dituzue, txosten honetan jasota.

Bestalde, talde-lanaren ostean, taldeetako bideratzaile guztiak elkartu ginen taldeetan egindako lanaren laburpen edo ondorio orokorrak prestatzeko. Ondorioak Topagunetik Arrate Ilarok eta HPStik Edurne Ramonek aurkeztu zituzten hitzaldi-aretoan.

Ekarpen-lanaren antolaketan eta dinamizazioan hainbat erakundetako ordezkariak aritu ginen:





2. Ekimenak nola sentiarazten nau?

Ekimenak nola sentiarazten nau? galderari hitz batean eta bakarka erantzun zioten talde-lanean aritutako partaideek. Hitz guztiak aplikazioan sartu eta hortxe duzue guztion artean sortutako irudia. Hitzen tamainak adierazten digu zeintzuk izan ziren gehien errepikatutako hitzak. Handien ikusten ditugunak, gehien errepikatutako hitzak dira.





3. Talde bakoitzak aukeratutako ekarpenak

Bakarka eta taldetxotan egindako ekarpenak konpartitu ostean, talde handira eramateko bi ekarpen aukeratzeko eskatu genien. Hortxe dituzue talde bakoitzak aukeratutakoak eta eragile motaren arabera sailkatuak:

3.1. Gizarte-eragileak

TALDEETAN AUKERATUTAKO EKARPENAK
HAINBAT LURRALDEETAKO ERAGILEAK (Nafarroa, Behe Nafarroa, Lapurdi, Araba, Gipuzkoa)
Ezin da HPSn proiektua izan soilik, Gobernu osoarena baizik.
Egitasmoaren arrakasta edo ez arrakastaren ardura guztia herritarren bizkar ezin da utzi.
BIZKAIKO ERAGILEAK
Elkarlana eta konfiantza hasieratik ziurtatu eta lan dinamikak berdintasunean oinarritu , horretarako herrietan zein nazio mailan partaide/sustatzaileen zeregina eta funtzio banaketa argia eta partekatua egin.
Ekimen hau modu arrakastatsuan aurrera ateratzeko herritarrei tresnak, baliabideak eskaini behar zaizkie. Herritarrak emozionalki, funtzionalki prestatu / trebatu beharko dira. bai belarriprest izateko, baita ahobizi izateko ere. Agurainen egin duten bidetik, herritarrak ahaldundu, gida, kaleko lana.
Jarrera epela dutenengana heltzeko eta erakartzeko bideak eta moduak lantzea ezinbesteko ikusten dugu: pertsona eredugarriak ekarri, haurren papera baliatu, eragile /elkarte epelengana jo banaka, herri mailako adostasun politikoa erakutsi (gizarte eragileak eta administrazioa).
Konfiantza falta gainditu, barku berean eta elkar zainduz. Lagunduko du “betikoak” egoteaz gain eragile eta aurpegi berriak egoteak. Lagunduko luke harremanak gozotzen. Horizontalak izan gura dugu, baina Jaurlaritza ari zaigu goitik... ondo prestatu beharko dira tokian tokiko pertsonak. Nazio mailako ekimenei (Bai Euskarari, Korrika) funtzionatu dute, baina oso puntuak izan dira. Orain berria da administrazioa tartean dagoela. Ez da ezer sinbolikoa, konpromisoa da, bai edo bai, eta ondo barneratu behar dugu.



GIPUZKOA
Mugarik ez. Haur eta gazteekin kontatu nahi dugu. Ezin dira beraientzat gauzak sortu beraiek parte izan gabe. Beste modu batean landu daiteke beraien parte hartzea.
Konfort gunetik aterako garenaren KONTZIENTZIA hartzea.
Eredugarritasuna erakundeetan hizkuntza lidergoa landuz. Praktikak eta erreferentziak badaude: Eralan (2-3), tailerrak (Telp, ETM, Bostekoak...), korteak euskaraz (info 7), "Gipuzkoan berdinago" ekimena,...
Nazio mailan egingo den girotze kanpaina handiaren barruan: <ul style="list-style-type: none"> • Tokian tokira egokitzera begira eredu interesgarrien adibideak baliatzea: Korrika kulturala eta Gure Esku Dago, besteak beste. • Herri mailako lanean bertakoak gaitzea herritarren baliabide linguistikoak garatzera begira eta gizataldeen interesguneetara iristeko tresnak-ideiak edukitzera begira.
Lan-ildoaren koordinazioa eta kudeaketa nazional mailara eta egoera/erritmo soziolinguistikoaren arabera moldata (herrialde, eskualdeka,...) eta, aldi berean, prozesuaren fase bakoitzean dagokien euskalgintzako agente profesionalak inplikatu zeresana emanez.
Aukera ona elkarrekin jarduteko administrazioak eta herrigintza (inor kanpoan utzi barik) nahiz eta, izaera eta jardun kontrajarriak izan zenbait eremutan. Horretarako, argitu beharko litzake eragile bakoitzaren ardura eta zereginak , behar diren baliabideak haien esku jarrita.
Egitasmoak malgua behar du, tokian tokiko errealitatera egokitzeko modukoa, denok aitortuta sentitzeko modukoa eta guztion inplikazioa behar duena.

3.2. Arduradun politikoak

TALDEAN AUKERATUTAKO EKARPENAK
GIPUZKOA ETA ARABA
Nola egin pedagogia belarriprest izateko gai ez diren pertsonak dinamikara erakartzeko ?
Erakutsi behar da elkarlanetik abiatutakoa dela, erakundeei eta herritarrek batera bideratzen dutela eta ez dela ekimen isolatua, baizik eta denboran iraun behar duela eta horretarako ingurugiro egokia behar dela.



3.3. Euskara-teknikariak

TALDEETAN AUKERATUTAKO EKARPENAK
LAPURDI
Herri-mugimenduei eman protagonismoa, eta esperimentazio bat egin herri/eskualde batean.
Ipar Euskal Herriaren parte-hartzea bermatzeko bideak/baliabideak jarri.
NAFARROA
Kontuan izanda @belarriprest eta @ahobizi potentzialak gizartearen ¾ ere ez dela eremu zabaltan, @irribizia funtzioak eskaini erdaldun osoen jarreretan ekarpena egiteko.
(Irribizia: euskaraz jakin ez, baina euskaraz egitea sustatu nahi dutenak. Ez dute oztopo izan nahi, eta poz hartzen dute besteek euskaraz egiten dutelako. Adibidez, etxe bateko mahai baten bueltan, gurasoek ez badakite baina seme-alabek bai, bultzatu egiten dituzte euskaraz aritzera, baita beraien aurrean ere.)
Nafarroan bezala euskararen aldeotasuna zabala ez den tokietan, egitasmoaren herri-ekimenaren izaera indartu (eta instituzionala lausotu, erantzun erreaktiboak saihesteko, neutralizatzen).
Nafarroan 2019ko udaberrian hauteskunde-urtea denez euskararekin lotutako edozein ekimen politikoki euskararen kontra jotzeko erabiliko da. Beraz, ekimenari 2017an hasiera ematea nahiko genuke. Arrakasta izateko baldintza da.
Euskara urria den eremuetan ekimenari egokitzapen bat egitea proposatzen da eta 12-16 urte bitartekoei egokitzea parte hartzaile aktibo izan daitezen. Gurean, ikastetxe askotan ereduak nahasi egiten dira eta kalea, espazioa, aisialdia ... konpartitu egiten dituzte. Euskarari atxikitzeke garai egokia da. Euskararekin harremanik ez dutenak erakartzeko modua da.
ARABA
Egon daitekeen adostasuna oinarritzat hartuta, elkarlana antolatu : hasierako planteamendua- ren irekitasuna eta malgutasuna bermatu; eragileak identifikatu eta hasieratik parte sentia- razi; bakoitzaren funtzioak denen artean zehaztu eta ardurak banatu.
Elkarlan-egitura horrek balio dezala hizkuntza-normalkuntzarako beste esparruetarako (plangintzaldi berria probestuz).
Proiektuak teorikoki oinarri sendoa izan behar du, eta 2017 urtearen bukaerarako prest izan behar da, zehaztuta; finantziario-bideak zein izango diren argi eduki behar dugu.



BIZKAIA
<p>Lan-estiloa ondo zehaztu behar da. Horretarako, ereduak eskaini behar dira, moldagarriak eta gure errealitate soziolinguistikoen arabera, eskuragarriak eta egingarriak, bereziki, belarriprest figurari zuzendutakoak. Irizpideak bateratu behar dira eta ondo zehaztu nortzuk diren belarriprestak, nola heldu beraiengana eta zelan erakarri, betiko kanpaina batean ez murgitzeko.</p>
<p>Ezinbestekoa da sukalde-lana egitea maila guztietan, Euskal Herrian, herrian, indarrak metatu behar dira, malgu jokatu behar da, ezinikusiak ekidin behar dira, politikakeriak ebitatu...</p>
<p>Ekimenaren transmisio eta koordinazio-lana hasieratik ondo diseinatu behar da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Tokian tokiko arduradun politikoek inplikazioa bermatzeko. • Ekimena Euskal Herria osoan garatzeko engranajea maila desberdinetan zehazteko: <ul style="list-style-type: none"> ○ Maila orokorreko erakundeak (Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Al- dundiak, Unibertsitateak...). ○ Lurralde mailako lan-mahaia. ○ Tokian tokiko lan-mahaia.
<p>Pedagogia-lan ona egitea gakoa izango da ekimenak eskaintzen dituen aukerak behar bezala baliatzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> ○ Hizkuntza-jokaera koherenteak aktibatuz. ○ Norbanakoen borondatea eta neurri sozialak elkarren osagarri bihurtzeko. ○ Euskaldunak sartzeko. ○ Herritar guztiengana heltzeko, baita normalean iristen ez garen horietara ere. ○ Behar den lekuetan elkarlanerako zubiak eraikitze edo indartzeko (aurrera begira ere euskararen normalizazio-prozesuan baliagarriak izango zaizkigun zubiak).
GIPUZKOA
<p>Proiektua nori zuzendua? Diskurtsoa oso ondo landu behar da, eremu guztietara egokitua: tipologia guztiak kontuan hartuta: euskaldunaz aparte, ulertzen ez dutenak; euskaldunak izan, baina erabiltzen ez dutenak, ahobizirako bidea eginez; ingurune euskaldunetako tipologiak ere kontuan hartuz... Bultzatzaileak: euskalgintzakoa ez den jendea ere izatea.</p>
<p>Proiektuaren gidaritza eta elkarlana nola? Konkrezioa erantsi behar zaio proposamenari, baina nork egingo du hori? Nola ziurtatuko dugu Euskal Herri osoko entitate guztiek hartuko dutela parte? Nola egokituko da errealitate soziolinguistiko ezberdinetara, bereziki arnasguneetara? Euskal Herri mailako ekimena izanik eta sustatzaileen artean Eusko Jaurlaritza egonik, bere ardura beharko luke izan erakundeen eta erreferenteen parte hartzea bultzatu eta ziurtatzea (NEG, Iparraldeko Elkargoa, udalak, pertsona eta enpresa erreferenteak...).</p>
<p>Diskurtsoa, komunikazioa, formazioa Gizartea ilusionatu behar da ideia honekin: proiektu hau burututa denok hobeto biziko gara eta denok irabaziko dugu herri moduan.</p>
<p>Arreta prozesuan jartzea: mugarri batzuk zehaztea, rolak definitzea, partaide, sustatzaileen... ahaldundutzea, guztion arteko (instituzioak eta herri-mugimendua) konfiantzan/elkarzaintzan arreta berezia jartzea.</p>



Komunikazio estrategiak zehaztu parte hartzaileekin, bi noranzkoan doana, xede taldeak definituta, eta inor bazterrean utzi gabe, bereziki erdaldunak.



Eranskina: taldeetan egindako ekarpen guztiak

1. Gizarte-eragileak

1. TALDEA: 1. SOLAIRUA (ABALOTZ GELA)

Bakarka egindako ekarpenak

- Tentazioa egongo denez 16 urteko muga ez aldatu (mantendu), eta izatekotan ere 18ra igo.
- Proiektuaren oso ageriko lekuan jarri erakundeetan lidergo postutan daudenek beren ohiko lanetan egiten dituzten "praktika berriak".
- Proposamena ikerketarekin lotu: zati bat ikertu, aspekturen bat, gunee batzuetan, kuantitatiboki edo kualitatiboki edo biak.
- Dimentsioa? Estrategia? Baliabideak? Konpromisoak? Lorpenak?
- Administrazioa/instituzio publikoen funtzio eta betebeharren baitan, zein praktika eredugarri abiatuko diren zehaztea.
- Euskalgintzaren arteko kontraste lanketa konpartitzea.
- Belarri prest eta aho-bizi ez direnentzat zer? =
- Homogeneizazioak badakar sorkuntzari ateak ixtearen ondorioa?
- Modu egokian kudeatzen ez bada erakunde-euskalgintzaren artean dauden mesfidantzak beldurrak zalan-tzak aurreiritziak.
- Proiektua HPSrena bakarrik ez gobernuarena, estrategikoa.
- Euskalgintza munduan gauden familien arteko elkarriketa gabe.
- Herritarrak aktibatze bide nahiko argia da. Instituzioak/admin. Aktibatze bidea ere jorratu beharko litza-teke.
- Euskalgintza desaktibatuta dagoen gunee tarako moldaketa proposamena zehastea garrantzitsua da.
- Mundu honetan sartuak ez dauden herritarrak/entitateak/admin nola erakarri? Ze mezu landu?

Post-itak konpartitu ostean, berridatzitako ekarpenak:

- Aurkezpenak ez du zehaztapen nahikoa izan ekarpenak egiteko
- Ezin da HPSren proiektua izan soilik, Gobernu osoaren baizik
- Euskalgintza barruan lanketa beharrezkoa da
- Mesfidantzak landu behar dira aurretik bestela honek proiektua oztopatuko du.
- Proiektuak arrakasta izateko ezin da goitik behera datorren zerbait izan indarra galtzen duelako, azalpen gehiago eman behar dira, konstrukzio teorikoak azaldu eta ondoren herri erakunde bakoitzari utzi proiektuaren helburura nola iritsi erabakitzen
- Ardura guztia herritarren bizkar ezin da utzi.

TALDEAN AUKERATUTAKO EKARPENAK

Ezin da HPSn proiektua izan soilik, Gobernu osoarena baizik

Egitasmoaren arrakasta edo ez arrakastaren ardura guztia herritarren bizkar ezin da utzi.



2. TALDEA: 3. SOLAIRUA (BURUNZPE GELA)

Bakarka egindako ekarpenak

Arrakastarako baldintzak:

- Administrazioaren benetako konpromisoa eskatu (BFA, Udala,..).
- Bakoitzaren rola ondo zehaztea. Proposamen zehatz bi. Euskalgintzako bilgune den Kontseiluan gaia ondo tratatu. Eragileekin bitarikoak antolatu.
- Elkarlana zelan planteatzen den ondo zehaztu, eragileekin batera planteatu prozesu hori.

Norekin?

- Norbanakotik, geuretik, Euskal Herrira.

Nola?

- Herri mailako komunikazioa espiralean irudikatuko nuke eta aldi berean sare gisa.
- Haurren bitartez erronka txikiak planteatuz eta guraso aiton-amonak eta familiak aktibatuz.
- Herrietako lan mahaiak osatzeko kontuan, zentzuz jokatzeari, hau da, proposamenean aipatutako "estiloa2 oinarri hartuta.

TALDEAN AUKERATUTAKO EKARPENAK

Elkarlana eta konfiantza hasieratik ziurtatu eta lan dinamikak berdintasunean oinarritu, horretarako herrietan zein nazio mailan partaide/sustatzaileen zeregina eta funtzio banaketa argia eta partekatua egin.

3. TALDEA: 3. SOLAIRUA (URBITARTE GELA)

Bakarka egindako ekarpenak

- Pertsonen nahian eragiteko neurri zehatz eta berariazkoak hartu behar dira. Kontzientzia, motibazio epela edo ez oso handia dutenen artean proaktibitatea handitzeko!
- Konfiantza lantzeko bitartekoak jarri beharra.
- Baietz 11 egun: konpromisoa bi pertsonaren artekoa izango da? Nik uste dut 11 egunez euskaraz egiteko konpromisoa ahalik eta gehien zehaztu behar dela oso euskaldunak ez diren herrietan.
- Elkar zaintzeak duen garrantzia. Egitasmoa denona dela sentitu behar dugu, eta hor Euskal Herrian mesfidantzez jositako tradizioa dago. Horrekin lotuta, tokian tokiko estiloa / erritmoa garatzen uztea garrantzitsua izango da.
- Administrazioetan banatuta egoteak jartzen digun muga gainditu beharko genuke ekimen honekin.
- Lehen fasean, erronkaren ezaugarriak komunikatzeko momentuan indar berezia jarri behar da: diseinuan, emozioetan, musikan. Erdaldunak erakartzea lortu behar dugu!
- Tokian tokikoak izan behar dira ekimen zehatzak, baina baita talde sozial ezberdinei modu berezi egokian bideratuta. Barakaldo edo Bermeo ez da berdina, baina ezta heldu eta gazteak, ezta euskara hiztun zein ez. 11 egun euskaraz arrakastatsua lortzeko aurreko lanak: herritarrak prestatu / ahaldundu, hau da, tresnak, erramintak eskaini.
- Eragile guztien parte hartzea eta inplikazioa lortzeko elkarlanerako baldintza egokiak jarri beharko dira.
- Komunikazioa egiterakoan: eredu diren aktoreen inplikazioa, pertsona famatu, kirol talde, erakunde denon ardura egin.
- Identifikazioa: bi figura daude (belarriprest eta ahobizi), baina hirugarren bat sortu, ulermen maila izan ez arren ekimenarekin bat egiten dutenena.
- Abenduaren 3aren ostekoaz pentsatu, kanpaina soil baten geratu ez dadin.
- Haurren parte hartzea sustatzea, helduen aktibazio prozesuaren laguntzaile edo eragile izan daitezten.
- Herri aktibazioaz ari gara, tokiko aktibaziotik abiatu eta Euskal Herri mailara zabaltu. Oinarria elkarlana administrazioa + eragileak + norbanakoak. Nola uztartzen / lotzen da hau guztia hizkuntza politika orokorra-



ren lanketarekin? HPSren arlo / ildo bat da ala Hizkuntza Politika osoa horretan zentratu / mugatu nahi da? Hizkuntza Politika osoaren aktoreak nortzuk dira? Hau ondo argitu behar da!

Elkarrizketa atera ziren hainbat kontu:

- Betikoak ez direnak inplikatzeko (erakundeak, pertsonak).
- Pertsona erreferenteak (famatuak) eta eragiteko gaitasuna dutenak inplikatzeko.
- Eragile / herri bakoitzaren errotua kontuan hartzea.
- Elkarlana eta konfiantza lantzea.
- Herritarrak prestatzea ez gaitzezen beti betikoak izan.
- Lehen kolpea indartsua izan dadila. Erroka kutsua hartuta.
- Kontzientzia epela dutenak prestatzea. Erosotasunetik atera.
- Hurrek zeregina dute helduak aktibatzen.

TALDEAN AUKERATUTAKO EKARPENAK

Ekimen hau modu arrakastatsuan aurrera ateratzeko herritarrei tresnak, baliabideak eskaini behar zaizkie. Herritarrak emozionalki, funtzionalki prestatu / trebatu beharko dira. bai belarriprest izateko, baita ahobizi izateko ere. Agurainen egin duten bidetik, herritarrak ahaldundu, gida, kaleko lana.

Jarrera epela dutenengana heltzeko eta erakartzeko bideak eta moduak lantzea ezinbesteko ikusten dugu: pertsona ereduak ekarri, haurren papera baliatu, eragile /elkarte epelengana jo banaka, herri mailako adostasun politikoa erakutsi (gizarte eragileak eta administrazioa).

Konfiantza falta gainditu, barku berean eta elkar zainduz. Lagunduko du "betikoak" egoteaz gain eragile eta aurpegi berriak egoteak. Lagunduko luke harremanak gozotzen. Horizontalak izan gura dugu, baina Jaurlaritza ari zaigu goitik... ondo prestatu beharko dira tokian tokiko pertsonak. Nazio mailako ekimenek (Bai Euskarari, Korrika) funtzionatu dute, baina oso puntualak izan dira. Orain berria da administrazioa tartean dagoela. Ez da ezer sinbolikoa, konpromisoa da, bai edo bai, eta ondo barneratu behar dugu.

4.TALDEA: **3. SOLAIRUA** (ERRIBERA GELA)

Bakarka egindako ekarpenak

- Ahobiziaz; pretakuntza, ahaldundutzea. Roletako prestatu, aktibo eta praktiko izateko. Eredu izatetik eragile izatera pasatzeko.
- Diskurtsoak: Euskarari buruz hitz egin beharrean, euskaldunoi buruz. Euskaldunon askatzean egiten dugu lan.
- Eragileen arteko harremanak, koordinazioa, lan mahaiak ondo zaindu.
- Beharra sortu konfort gunetik ateratzeko (edo ateratzea bermatzeko) tresnak landu.
- Nola? 2 fase? Euskalgintzatik "konfort"-etik kanpora atera beharra. Aniztasunean nola?
- Konfort guneeetatik ateratzeko baliabideak lirakeenak eman, hau da hizkuntza-portaera berrietan deseroso ez sentitzeko tresnak.
- Elkarlana: ahalik eta zabalena, eta bakoitzak egin dezakeen lana egin dezala, inork ez dezan gainkarga moduan hartu. Hau zaindu behar da.
- Euskarazkoak ez diren komunikabideetan lanketa.
- Toki bakoitzeko errealitatea moldagarria izatea.
- Gakoa: aurrelana oso garrantzitsua, eta asko zaindu beharrekoa: pedagogia eta komunikazioa.
- Egokitze aukera malgua izatea, tokian tokiko balizko egoera eta baldintzak kontuan hartuz.
- Hiria irabazi; euskaldunok liderrak (modernoenak, elitistena, hobetoen pasatzen dute), munduarekin lotura (euskara-ingelesa, Espainia eta Frantzia bitartekari gabe), herri xehea....
- 16 urtetara ez mugatu.
- Non? Lan munduan arituko nintzateke, administrazioan esaterako.
- Ingurune soziolinguistikoak kontuan hartu.
- Erdaldunak konkistatu.
- Euskaldunberriei-belarriprestei; maila desberdinetan arreta eskaini- ulermena bi hizkuntzetako jarduerak etab. Sistematizatu+ metodologikoki landu/Habe, uniberts., Euskalt., aholkul.



- Komunikabideak, prentsa: komunikazioa ondo eman gizarteratzeko.
- Euskalgintzako erakundeak lehiaketa (ekonomikoa) egoeratik atera. Gizarte erakundeak + HPS.
- Koherentzia eta konpromezu instituzionala. Independentzia. Harremanak zaindu.

Taldeka egindako ekarpenak:

- KONFORT gunetik aterako garenaren KONTZIENTZIA hartzea.
- Mugarik ez; haur eta gazteentzat ezin dira gauzak egin beraiek parte izan gabe. Tresnak barneratzeko. Beste modu bateko parte hartzea proposatu daiteke beraientzat, baina ezin dira kanpoan utzi.
- Gune soziolinguistiko bakoitzak helburu errealak jarri behar ditu. Eta bakoitzak bere proiektua garatu ahal izatea.
- Ohitura aldaketa lortzeko trebakuntza sistematizatu hedatu (Belarriprest + kolektibo euskaldun ez-hiztunak begira). Erakunde publiko guztietan eta lan mundu pribatua (programa berriak sortu erakundetarik sektore pribatura zuzenduta, eta erakargarriak eta baliagarriak-praktikoak)
- Mesfidantza alde batera uzteko, elkarlana ongi definitu proiektu honetan; helburuak, rolak, konpromezuak, independentzia). Proiektu honetan elkarlana egiteko konpromisoa hartu eta zaindu, baina beste kontueta-rako askatasuna errespetatu.

TALDEAN AUKERATUTAKO EKARPENAK
Mugarik ez. Haur eta gazteekin kontatu nahi dugu. Ezin dira beraientzat gauzak sortu beraiek parte izan gabe. Beste modu batean landu daiteke beraien parte hartzea.
Konfort gunetik aterako garenaren KONTZIENTZIA hartzea.

5. TALDEA: 4. SOLAIRUA (GONAGORRI GELA)

Bakarka egindako ekarpenak

- Nazio mailako koordinazioa eta kudeaketa.
- Komunikazio eta saretze lanketa herri bakoitzean.
- Mekanismo eraginkorrek behar dira komunikazioan parte hartzaile anitzak informatuta egoteko eta kohe-sioa lortzeko.
- Erakundeen pausu/konpromezu posibleak hiritarrek/gizarteak definitzea.
- Herritarrengana iristeko haiek inplikatzen moduak: Erakundeek -> Herritarrek; Elkarrekin -> Herritarrek.
- Kanpaina nazional/tokian-tokiko berezitasunekin, hilabete batzuk lehenagotik hasita Korrika kulturalaren tankerako zerbait handia datorrela erakusteko (hitzaldiak, lipdub, erronkak,...).
- Ebaluazioa, ikerketa, jarraipena egin ahal izateko tresnak sortu/bilatu.
- Koordinazio orokorrera euskalgintzako beste erakunde/eragile batzuk batzea. Ez daitezela izan soilik HPS eta Topagunea.
- Korteak euskaraz ematea EITBn (erdarazko saioetan) info 7ko albistegien eredia jarraituz (eredugarritasuna).
- Elkarbizitza "euskaraz"/"euskaraz ere" adostasuna. Akordio soziopolitiko, kultural, sindikal, akademiko, ki-rol, sektorial,...
- Baliabide linguistikoak herriko pertsonak bideratzea (bertakoak). Ulertu-Belarriprestatu-Ahobizitu horretan arituko direnak herrian bertakoak izatea (Gertutasuna-Egokitzea-Sinesgarritasuna).
- Haur eta nerabeekin lan egin sustatzaile izan daitezten gurasoei begira. Garbi ikusi dadila helduentzako erronka dela.

TALDEAN AUKERATUTAKO EKARPENAK
Eredugarritasuna erakundeetan hizkuntza lidergoa landuz. Praktikak eta erreferentziak ba-daude: Eralan (2-3), tailerrak (Telp, ETM, Bostekoak...), korteak euskaraz (info 7), "Gipuzkoan berdinago" ekimena,...



Nazio mailan egingo den girotze kanpaina handiaren barruan:

- Tokian tokira egokitzera begira eredu interesgarrien adibideak baliatzea: Korrika kulturala eta Gure Esku Dago, besteak beste.
- Herri mailako lanean bertakoak gaitzea herritarren baliabide linguistikoak garatzera begira eta gizataldeen interesguneetara iristeko tresnak-ideiak edukitzera begira.

Lan ildoaren koordinazioa eta kudeaketa nazional mailara eta egoera/erritmo soziolinguistikoen arabera moldatu (herrialde, eskualdeka,...) eta, aldi berean, prozesuaren fase bakoitzean dagoen euskalgintzako agente profesionalak inplikatu zeresana emanez.

6. TALDEA: 4. SOLAIRUA (DANTZA ARETOA)

Bakarka egindako ekarpenak

- Zama guztia elkarte eta norbanakoen gain jartzea ez da egokia, herri administrazioek ere badute erantzukizunik. Ekarpina ez da behar adinakoa.
- Informazio gehiago behar da
- Dudak ea azkarregi ez ote goazen. Administrazioari lana pilatuko zaio eta badu lanik gauzatzean
- Gauzak elkarlanean egiteko aukera handia. Egonezinak ere sortuko ditu. Korrikako euskalgintzak elkarrekin egindako kilometroa eredu, zubigintza. Hala ere zenbait duda daude. Nola heldu dira planteamendua hau osatzera. Parte-hartzailea izan beharko luke hasieratik. Zer gertatuko zen Udaltopera etorri ezean? Nola izango genuen proposamenaren berri? Egiten diren kontuok nola uztartu egunerokoan darabilgun marxa eta ekimen pilarekin? Tarte laburra inertiak aldatzeko.
- Arnasa ematen du gauza txikiez osaturiko proiektu handiak egituratzea, ikuspegi nazionala ematea kontu txikien bitartez. Ekimenean Administrazioa egotea hasieratik positiboa da.
- Administrazioak baliabideak jarri behar litzukete herri mugimenduekin bat elkarrekin jarduteko
- Aktibatu Jaurilaritza besteak beste. Hasieratik Jaurilaritzak oinak lurrean herri mugimenduekin batera behar du lanean, ez oholatza gainetik so.
- Lasarte-Orian egindakoa hedatzea beharrezkotzat jotzen da. Bazterrean inor ez uzteko moduko proiektua behar du. Orain arte herri ekimeneke euren kabuz aritu dira eta hauen lana aintzat hartu eta baliotan jartzea oso positiboa da.. Hala ere, Euskal Herri osorako plan estrategiko orokor bat faltan botatzen da.
- Topagunea eta HPSek koordinazioa eramateak ez du esan nahi proposamena euren denik. Denek nahi dugun guztiok proposamena gure egiteko aukera izan behar genuke eta benetan sortzen diren lan mahaiak dauden moduan nazional mailan ere lan mahaiak sortzea komeniko litzake.
- Botere guztiak kudeaketa bermatu!
- Ez da ekimen bat. Estrategia bat da, orain artekoari gehitzen zaion lan-ildo bat. Hori azpimarratzea. Epe mugarik ez duela.
- -Egiten dugun guztia ikerketa lerrotik sakondu.
- Errekonozimenduaren zaintza. Lehen lerroan joan behar luke proposamen berria: ELKARREN AITORTZA
- Koordinatzaile taldea zabaldu talde gehiagori.
- Ekimen honen eragina zientifikoki neurtu: kuantitatiboki eta kualitatiboki.
- Herrietako egitasmoetan herriko entitate publikoen ekarpena txertatzea.
- Aitortza(elkarrena). Ezinbestekoa elkarlanerako.
- Baldintzak orain ematen badira, baldintzak aldatuta atzera pausorik ez emateko oinarriak sendo jarri behar dira.
- Aurre-fasea zehaztu: Ekarpenak, aurten zer egin eta formazioa
- Antolakuntzarako eragileen funtzioak eta zereginak
- Diru baliabideen beharraz hitz egitea.
- Denbora eta jakituria
- Dedikazioa (formazioa...)
- Boluntariora hutsean edo beste eginkizun batzuek bukatu ondoren, bazterrean gelditzen dena ez dadin izan.
- Elkarbizitza-zintotasun ariketa
- Norbanako mailaren eta egituraren inbertsioa.
- Politikari eta gizarte, kultura, kirol... esparru publikoko pertsonen konpromisoa. Eredugarriak izan beharko lukete euskararen erabileran.
- Euskalgintzatik kanpoko eragileak nola prestatu : dirua, komunikazioa..
- Haurren inplikazioa gurasoen aktibaziorako.
- Euskal Herri osoan aktibazioa. Aztertu eta abian jarri Ipar Euskal Herrian eta Nafarroan aktibazioa.



- Aurrez Lasarte-Orian egin den euskararen maratoiaren moduko indar elkartzea. Herritarren kohesio landu beharko litzake euskara kontuetan.
- Progresiboa izatea: 2011an, 11 egun; 2019an, 21 egun...
- Eragileen papera argitu
- Lan mahaien funtzioa zehaztu: proiektu bat gehiago?
- Baliabideen kudeaketa argitu.
- Adierazleak zehaztu.
- Formazioa
- Herrietako euskara elkarteak aktibatu eta indartzeko lana egin behar litzake.
- Esperientzi ezberdinetan oinarriturik(Euskal Giroitze Barnetegia) 12 urte arte jaitsi parte hartzea.
- Txapa identifikatiboak denontzat!
- Ahal diren indar gehienak erabili: bai administrazioetatik(udalak, hezkuntza, funtzionarioak...); bai eragileetatik...

Ekarpenak konpartitzearekin batera sortutako eztabaida...

- Nazio mailako koordinazio mailan bakarrik HPS-Topagunea egoteak dudak sortzen ditu iris-ahalmena mugatzen delako, denon parte-hartzea beharko zelako eta indarra hartuko lukeelako. Bestelako administrazio eta eragileek parte hartu beharko lukete koordinazio gune horretan. HPS ez da Jaurlaritza. Jaurlaritzak bere egingo al du egitasmoa? Eredu Jaurlaritzak behar du Lehendakariak kasurako eta ez HPSko arduranak(hauek ere bai), Topaguneak ere etxeko lanak ditu, euskalgintza aktibatzea. Lan-banaketa zehaztea komeniko litzake.
- Diru baliabideak jarri eta zehaztuko beharko lirakeela uste da; alegia, Aguraineko esperientziaren kontra-koia egitea baliabideen kasuan.
- Adin mugaren kontura eztabaidatu da, batzuk uste dute adin tartea 12 jaisteak ezinbestekoa dela kontzientziadun gazteak direlako adin horretatik aurrerakoak. Eskola girotik kanpo landu beharreko kontua izan beharko lukeela. Zenbaitek uste du 12-16 urte bitartean egin direla planifikazio andana, eta , adinez nagusiak direnen esku behar duela erantzukizunak. Haurrek gurasoen aktibazioerako rola joka dezaketela, baina, erantzukizuna ezin dela tamaina berekoa izan. Egin diren inizatibak aztertuta, egoki deritzote gazteagoi eskatzen zaien ardura txikiagoa izatea, baina, aintzat hartu beharrekoa izatea.
- Tokian tokiko egunerokora egokitze modukoa beharko lukeela uste da. Administrazioak ez badio heltzen proiektuari zer? Zer egin halako herrietan? Lan eskerga handia Euskal Herri osora hedatzeko norbere egoera ezberdinak aintzat hartuta. Elkarguneak egitea ezinbestekoa da. Txertatu egin behar dira lema eta kanpaina guztia bide beretik joateko . Euskararen txantxangorriak hankamotz geratu zen herrigintzaren inplikazioa behar zuelako eta ez zelako landu.
- Komunitate elebakarra ere aintzat hartu behar litzake, inor bazterrean utzi ez.
- Erabakiguneak herriak izatea ezinbestekotzat jotzen da, herrietatik josi nazio mailako sarea.

TALDEAN AUKERATUTAKO EKARPENAK

Aukera ona elkarrekin jarduteko administrazioak eta herrigintza(inor kanpoan utzi barik) nahiz eta, izaera eta jardun kontrajarriak izan zenbait eremutan. Horretarako, argitu beharko litzake eragile bakoitzaren ardura eta zereginak, behar diren baliabideak haien esku jarrita.

Egitasmoak malgua behar du, tokian tokiko errealitatera egokitze modukoa, denok aitortuta sentitzeko modukoa eta guztion inplikazioa behar duena.

2. Arduradun politikoak

7.TALDEA: 4. SOLAIRUA (OZTARAN GELA)

Bakarka egindako ekarpenak

Orokorrak

- Txistorradak eta txokolatadak gairatu eta beste fase batean sartzeaz aritu gara UDALTOPEN. Euskal Herri-tarrentzat erakargarri izango diren ekinbideak lantzean datza gakoa, kutsu instituzional eta militanterik izango ez dutenak. Zukutu ditzagun burmuinak euskaraz bizitzea (kultura, sormena, harremanak...) guaya izan dadin.



- Nik ez nuke egun finkoetara eramango.
- Goitik behera egingo den zerbaiten itxura hartu diot. Tokian-tokiko indarretara mugatuko den zerbait bezala planteatuko nuke eta behetik gora egingo.
- Momentuko olatu handia beharrean, tokian-tokiko errepikakorrak izango diren olatu txikiak sortu. Denboran egonkortu ahala izan daiteke planteatutakoa.

Euskara ez dakitenak

- Belarriprest izateko gai ez diren pertsona horiek ere erakartzeko moduak bilatu. Adibidez, lehen hartu-emanak euskaraz izan daitezen 10 hitzezko hiztegiak banatu (kaixo, zer moduz, ondo, egun on, mese-dez...) behar dutenentzat eta hainbesterako gai badirenei, hitz gutxi horiek behintzat erabil ditzaten eskatu.
- Erdaldunak erakarri. Errespetuz, ondo komunikatu eta ondo azaldu. Beraiek ere nolabaiteko beharra sentitzea bilatu, euskararen alde asko egin dezaketela

Batasuna/elkarlana

- Tokian-tokiko eragileak batu eta indartu gizarte mailan indartsu zabal dadin. Komunitate-sentimendua indartzeko. Helburua lortzeko estrategia definitu.

Gidaritza/laguntza

- Gure erakundearen dinamikak martxan jartzeko aditu talde baten laguntza jasotzea. Erakundeentzako deialdi irekia egitea 2017an ekimenaren diseinurako.
- Teknikari eta politikariei beren herrian lanketa ondo bideratzeko gune bat edo beren kezkek argitzeko pertsona jakin batzuk (talde bat) eduki.
- Formazioa eskaini, ikastaroa, 40 ordukoa

Komunikazioa

- Proiektua komunikatu/zabaltzeko ABIAPUNTU-BIDE BERRI baten hasiera dela azpimarratu
- Ekimenetik aparte, testuinguru egokia izan behar du: euskararen irudi publikoa, euskararen beharra, hizkuntzaren inguruan transmititzen diren mezuak, inplizituak eta esplizituak.
- Ez da ekimen isolatua, gizarte batean murgilduta dago.
- Komunikazio-kanpainak beldurtzen nau; guk herrian egin genuenean asko kostatu zitzaigun, eta EH osorako oso zaila ikusten dut.

Motibazioa

- Herritarrengana heltzeko, proiektuan parte hartzeko motibazioa: nola heldu, animatu? Motibazio-kanpaina indartsua zabaldu...
- Sensibilizazio-lan horretan indar handia jartzea. Lan-metodologia guztion artean zehaztu, adituek gidatuta.

TALDEAN AUKERATUTAKO EKARPENAK

Nola egin pedagogia belarriprest izateko gai ez diren pertsonak dinamikara erakartzeko?

Erakutsi behar da elkarlanetik abiatutakoa dela, erakundeei eta herritarrek batera bideratzen dutela eta ez dela ekimen isolatua, baizik eta denboran iraun behar duela eta horretarako ingurugiro egokia behar dela



3. Euskara-teknikariak

8.TALDEA: 1. SOLAIRUA (SAUSTA GELA)

Bakarka egindako ekarpenak

- Elkarrekin eta herritarrak hastapenetik inplikatzeko saiatu.
- Ekimen hauen arrakastaren gakoetako bat tokiko eragileen inplikazioa dena, mekanismoak pentsatu horren bermatzeko, ez galtzeko bidean.
- Euskalgintzako eragile/elkarrekin guzietan bildu proposamena eztabaidatzeko.
- Iparraldean komunikazio-kanpaina egokitu frantses erdaldunak hunkitzeko ere.
- Iparraldean, hegoaldean eramanak izan diren ekimenak aipatu, bertako antolatzaileak etorraziz, hitzaldiak antolatuz...
- Nafarroa Garaian ere lan berezi bat egin.
- Gizartetik edo euskalgintzatik abiatu behar da (eta ez administratibotik).
- Iparraldeko errealitatea kontuan hartu behar da (legeak, testuingurua, hiztunen kopurua...) denetan: materiala, antolakuntza eta abar.
- Lurraldeen testuinguruaren arabera egokitu proposamena (ardatza nagusi bat atxikiz). Tokian tokikoa.
- Erabilpenari buruzko komunikazio-kanpaina batekin hasi? Sentsibilizazioa herritarrengan.
- Baliabideak behar dira: ez bakarrik finantzamenduak, baizik eta giza baliabideak batez ere.
- Hiru eskualde administratiboetako administratibotik eta elkarrekin-ordetzaileak elkarlanean jarri.
- Iparraldean bilkurak antolatu: EEPekin; Hirigune Elkargoko Euskara Batzordea + Zerbitzuarekin; herri guztietan; EKEren bidez, elkarrekin.
- Iparraldeko "euskara elkarrekin" (Zabalik-Amikuze, Adur-Baigorri gisako elkarrekin) bildu lehenik, eta, deialdi nazionala egin aitzin (2018an), Ipar Euskal Herriko eskualde batean gauzatu (Iparraldeko Agurain, Egia bat beharrezkoa).
- Nafarroako Gobernuaren eta Euskal Hirigune Elkargoaren partaidetza.
- Euskal Herriko erakunde publiko guztiei gonbita luzatu (eztabaidetan parte hartzeko, proposamenaren berri emateko).

TALDEAN AUKERATUTAKO EKARPENAK

Herri-mugimenduei eman protagonismoa, eta esperimentazio bat egin herri/eskualde batean.

Ipar Euskal Herriaren parte-hartzea bermatzeko bideak/baliabideak jarri.

9.TALDEA: 4. SOLAIRUA (OSINA GELA)

Bakarka egindako ekarpenak

Nolakoa

- Premisa egiazkoa da? "Aldekotasuna bada oro har" (Nafarroa erdi/hegoaldean krispazio egoera).
- Filosofia aldaketa. Lan egiteko moduen aldaketa: planifikazioa, profesionalizazioa, gogoia.
- Lorpenen beharra daukagu; beraz, helburu lorgarriak jarri beharko ditu proiektu honek, tokian tokiko erralitateak kontuan hartuz.
- Jarraikortasuna. Neurri batean ebaluazioa egin ondoren ikusiko da, baina alde aurretik jarraipena nola emanen zion irudikatu behar da (kanpainetatik ihesi).
- Ebaluazioa. Ekimenaren eragina neurtzea (hasi aurretik, bukatu eta berehala, epe jakin batera) (Lasarte-Orian egin den bezala).

Noiz

- 2019a libre, hauteskundeak.



- 2019, neurri bat hartzeko konpromisoa → hauteskunde urtea. Arriskua ikusten dut, erakundeen aldetik, behintzat.

Norekin

- Arrakasta izateko. Betiko jendeaz gain eragile-herritar-norbanako berriak erakartzea garrantzitsua: a) betikoak (nekatu/apaldu direlako), b) jende berriak ilusioa, energia, indarra ekarriko duelako.
- Zer egin deus ulertzen ez dutenekin, eskualde batzuetan ez dira gutxi. Trebakuntza aipatu da, baina ez dut argi ikusten.
- Belarriprest, Ahobizi + "Iribizi". Erdaldunei funtzioa eskaini. Jarrera: ostalaritza, mezu erraza, talde-elkarrizketak ez trahatu...
- Erdaldunekin zer egin?
- Nafarroan ez baitu EAEn duen aldekotasun zabala. Proposamena: hori aintzat hartu. Euskaldun euskara-fobiko gehiegizko dago zenbait tokitan. Bertzeak ari daitezen prest.
- 16 urtetik gorakoei zuzendurik, zergatik ez lehenago?
- Euskara urria den eremuetan bereziki 12-16 urte bitartekoein lan egitea: euskarari atxikitzeke garai egokia delako eta gaitasun erlatiboa hobetzeke aukera dakarrelako. Ekimena 12-16ko adin taldera zabaltzea.
- Nafarroan adminisrazioan dagoen aldekotasuna probestu beharra dago. Arrakasta: hori probestu.
- Nafarroan euskalgintza babestu, indartu... beharra dago. Osatu: euskararen erabilera aktibatzeke ekimenak izan dezala (lehen edo batera) euskalgintzaren trinkotzea.
- Euskara elkarterik ez dagoen eskualdeetan (edo euskalgintza ahula den tokietan) nola bilatu aliatuak?
- Arrakasta izateke euskaldun+pasiboen kopuru erlatibo nahikoa? (Lizarraldean, ¾ erdaldun oso).

Aurrekontua

- Komeni da ekimena oso zehaztua egotea 2017ko irailerako (diru-kontuengatik).
- Aurrekontua (materiala...).
- Aurrekontua 2017ko 4. hiruhilekoa.

Komunikazioa

- Komunikazio-plana: oso ongio zehaztuta, gizarteratzeko gidoia → oso garrantzitsua. Diskurtsoa.
- Gizarteratzeko gidoia (nork, non, zer, noiz...).
- Kontrako diskurtsoak nola deskatibatu.
-

TALDEAN AUKERATUTAKO EKARPENAK
Kontuan izanda @belarriprest eta @ahobizi potentzialak gizarteraren ¾ ere ez dela eremu zabaletan, @irribizia1 funtzioak eskaini erdaldun osoen jarreretan ekarpena egiteko.
Nafarroan bezala euskararen aldekotasuna zabala ez den tokieta, egitasmoaren herri-ekimenaren izaera indartu (eta instituzionala lausotu, erantzun erreaktiboak saiehesteko, neutralizatzeke).

1 Iribiziak: euskaraz jakin ez baina euskaraz egitea sustatu nahi dutenak. Ez dute oztopo izan nahi, eta poz hartzen dute besteek euskaraz egiten dutelako. Adibidez, etxe bateko mahai baten bueltan, gurasoek ez badakite baina seme-alabek bai, bultzatu egiten dituzte euskaraz aritzera, baita beraien aurrean ere.

... ETA BI EGOKITZAPEN-PROPOSAMEN, KONTUAN IZATEKO
Nafarroan 2019ko udaberrian hauteskunde-urtea denez euskararekin lotutako edozein ekimen politikoki euskararen kontra jotzeko erabiliko da. Beraz, ekimenari 2017an hasiera ematea nahiko genuke. Arrakasta izateke baldintza da.
Euskara urria den eremuetan ekimenari egokitzapen bat egitea proposatzen da eta 12-16 urte bitartekoei egokitzea parte hartzaile aktibo izan daitezen. Gurean, ikastetxe askotan ereduak nahasi egiten dira eta kalea, espazioa, aisialdia ... konpartitu egiten dituzte. Euskarari atxikitzeke garai egokia da. Euskararekin harremanik ez dutenak erakartzeke modua da.



10.TALDEA: 4. SOLAIRUA (MUNTTERI GELA)

Bakarka egindako ekarpenak

Nolakoa

- Proposamen orokorra da; zehaztasunak, tarteko helburuak eta dinamikak falta.
- Nola lortu intxaur guztiak saski berean ez sartzea; oro-biltzailea izan dadila, baina ez indar-xurgatzailea.
- Ekintza jakin horretara ez mugatzea.
- Tokian tokikoa aprobeitzatzeko bezain malgua izan behar du proiektuak.
- Herri, auzo, elkarte...horretan nolabaiteko eragin praktikoa uzteko modukoa; (kanpainatze-arriskua)
- Adina baldintza izateak (+ 16) muga dezake emaitza, adibidez, ikastola batean?
- Baldintzak zehaztu behar dira.
- Diskurtso berria, pedagogia berria 2017an zehar egitea/sortzea HPS + Topaguneak gizarteari eta herritarri iritsi ahal izateko.

Norekin (egitura, eragileak)

- Abiapuntu berri bat behar da; azpimarratu
- Eusko Jaurlaritzaz gain, gainerako herri-administrazioen inplikazioa bilatu, eta horri lotuta, erakunde publiko bakoitzaren partaidetza aginte-maila gorena duen unitateak kudea dezala.
- Koordinazio-bideak eta moduak ondo adierazi eta zehaztu.
- Euskalgintza,eragile eta erakunde publikoen arteko elkarlan zintzo eta gardena bermatzea, eta gizarte-eragileak lidergoa izatea.
- Eragileen identifikazio-fasea gehiago zehaztu. Ekimenerako estrategikoak diren eragileak identifikatu, euren ekarpenak egiteko kanal egokiak ezartzea eta ekarpen horiei behar bezalako lekua egitea. Prozesu parte-hartzaile irekia eta gardena izan dadila.

Baliabideak

- Erakunde publikoak baliabideen eskaintza eskuzabalak izatea.
- 2018-2021 plangintzaldirako ildoetan aurrekontua sartu

TALDEAN AUKERATUTAKO EKARPENAK
<ul style="list-style-type: none"> • Egon daitekeen adostasuna oinarritzat hartuta, elkarlana antolatu: hasierako planteamenduaren irekitasuna eta malgutasuna bermatu; eragileak identifikatu eta hasieratik parte sentiarazi; bakoitzaren funtzioak denon artean zehaztu eta ardurak banatu. • Elkarlan-egitura horrek balio dezala hizkuntza-normalkuntzarako beste esparruetarako (plangintzaldi berria probestuz).
<ul style="list-style-type: none"> • Proiektuak teorikoki oinarri sendoa izan behar du, eta 2017 urtearen bukaerarako prest izan behar da, zehaztuta; finantziario-bideak zein izango diren argi eduki behar dugu.

11.TALDEA: 3. SOLAIRUA (TXARTEL GELA)

Bakarka egindako ekarpenak

Komunikazioa

- Komunikazioak maila guztietan eraginkorra izan behar du, bereziki arduradun politikoak inplikatzea lortu.
- "Erraztaile" lanak egin behar dira: komunikatu eta elkarlanean aritzeko aukerak behatu.
- Egitasmoaren arrakastarako aurrelana egin beharra dago, komunikazioa. Helburuak eta beharrezko diren baliabideak definitzea, jakinaraztea, motibatzea. Baliabide ekonomikoak. Koordinazioa.
- Aurkezpen bat maila politikoan egitea inplikazioa lortzeko.



Koordinazioa

- Koordinazioa ezinbestekoa izango da. Norberaren berri elkarri eman: lanak errazteko, baliabideei etekina ateratzeko, indarrak metatzeko, bakarrik ez sentitzeko eta proiektua sendotzeko bilerak sortu.
- Herriko hiztun kopuru txikia dela kausa, eskualdean egiteko proposamena egingo nieke lankideei. Herrigintzarekin ere proiektu honen inguruko lehenengo topaketak sortzeko edo probokatzeko prest.
- Euskaldunak ahalduntzeko eta erdaldunak informatzeko tailer ugari beharko da Euskal Herriko bazter guztietako biztanleak jakitun egon daitezen. Mailakatu beharko dira beraz tailerrak era ondo koordinatu ilusia, indarra eta eragina aldi berean gerta dadin.
- Zehaztasun gehiago tokian tokioa antolatzeko. Agian euskaldunen kopurua txikia den lekuetan eskualdeka egitea, arazoak izango baitira ahobiziak topatzeko.
- Antolamendua ondo zehaztu, ez gaitezen noraezean ibili. Eredu ezberdinak sortu euskalgintza eratu/eratu barik dauden herrietarako.

Sukalde-lana

- Sukalde-lana egin beharra. Eragileen arteko borondatea landu behar, ezinikusiak ekidin, indarrak metatu, ezkerreko eskua erabili, malgu jokatu... politikakerietan ez sartu.
- Erdaldunak eta euskaldun ez militanteak aktibatzea, informatzea, geureganatzea ezinbestekoa izango da.
- Belarriprestak iruditzen zaizkit giltzarri eta baita ulermen-maila txikia duten herritarrek ere. Nola lortu? Nola sentsibilizatu? Zein da irizpidea?
- Aurrelanean indar handia egin behar da. Oso ondo pentsatu atal hori. Komunitate sentimendua indartzea aipatu da eta uste dut horretan eragin behar dela.
- Behin eta berriz entzun dugu bi egun hauetan euskaldunen aktibazioaz. Hori garrantzitsua den arren, nire ustez ahalegin benetan berezia egin beharko genuke euskaldunak ez direnak geureganatzen: bai ulertzen ez dutenak eta baita apur bat ulertzen dutenak ere. Hortxe dago gakoa nire ustez, eta hori da lanik zailena.

TALDEAN AUKERATUTAKO EKARPENAK

Lan-estiloa ondo zehaztu behar da. Horretarako, ereduak eskaini behar dira, moldagarriak eta gure errealitate soziolinguistikoen arabekoak, eskuragarriak eta egingarriak, bereziki, belarriprest figurari zuzendutakoak. Irizpideak bateratu behar dira eta ondo zehaztu nortzuk diren belarriprestak, nola heldu beraiengana eta zelan erakarri, betiko kanpaina batean ez murgitzeko.

Ezinbestekoa da sukalde-lana egitea maila guztietan, Euskal Herrian, herrian, indarrak metatu behar dira, malgu jokatu behar da, ezinikusiak ekidin behar dira, politikakeriak ebitatu...

12.TALDEA: 3. SOLAIRUA (ANTXOTA GELA)

Bakarka egindako ekarpenak

- Oraindik orokorregia da proposamena, inkognita asko daude oraindik.
- Proposamena barneratzeko denbora gutxi izan dugu.
- Jakin-mina sortzen duen proposamena da.
- Zubigintza sustatzen du, ohiturak aldatzeko aukera eskaintzen du. Pedagogia egitea gakoa izango da.
- Komunikazioa egokia eta pedagogia lana ezinbestekoak izango dira gizartearen arlo guztietara iristeko.
- Parametro berrietan egindako proposamena da, lurraldetasuna aintzat hartuta. Parte-hartzaileen aldetik berria da.
- Abiapuntua interesgarria da oso, instituzioak eta Topagunea. Inplikazio batzuk ikusi dira, beste batzuk faltan.
- Besteak beste udaletako teknikariei aterpe bat ematen digu. Tokiko arduradun politikoen inplikazioa ezinbestekoa dugu teknikaririk eta Bizkaiko Foru Aldundiaren parte hartzea beharrezkoa da.
- Tokian tokiko erakundeetara iristeko transmisioa nola egingo da? Hori oso ondo zaindu behar da.
- Euskal Herri mailan ekimena ondo garatzeko engranajea hasieratik ondo diseinatu behar da.
- Herri erdaldunetan batez ere ekimen hau aroprobetza daiteke sakabanatuta dauden euskaltzaleak batzeko, saretzeko.
- Euskararen alde egiten dutenak gizarteratzeko, erakuslehoan jartzeko balioko du.
- Horrelako zerbait beharrezkoa da eta borondatea eskatzen du.
- Norbanakoen borondatean eragin.



- Hizkuntza Politika Sailburuordetzaren aldetik jarrera aldaketa bat ikusten da, Txantxangorritik jauzi bat dago hemen eta elkarlana beharrezkoa izango da maila guztietan.
- Hizkuntza Politikan txip aldaketa bat suposatzen du honek. Plangintzatik harago, erabileran jartzen du fokua eta errealitatea abiapuntu jarrita.
- Ekimen honek koherentzia eskatzen die eragileei: arduradun politikoak, enpresak, elkarteak...
- Malgutasuna beharrezkoa izango da.
- Ekimen honek eragile ezberdinak euskararen alde lan egiteko orduan elkarrekin aritzeko bideak/plataformak finkatzea ekar dezake.
- Ekimen honek aukera eman dezake elkarte/enpresa/ikastetxe eta bestelakoetan euskararen erabilera modu transbersalean lantzen hasteko.

Hiru lantalde sortu ditugu eta hauexek ateratako hausnarketa nagusiak:

- Gizartearen ezaugarri soziolinguistikoak aintzat hartuta, jende guztiarengana nola heldu ondo zaindu behar dugu, normalean iristen ez garen horietara ere iritsi, guztiongan eragin ahal izateko. Gizartearen sektore guztietara iritsi nahi dugula kontuan hartuta pedagogia-lana oinarrian jartzea eta ondo lantzea gakoa da.
- Tokian tokiko arduradun politikoen inplikazioa bermatzeko bideak ondo zehaztu behar dira, ekimenaren transmisio eta komunikazio-lana egoki diseinatu. Politikarien bultzada ezinbestekoa da eta euskara-teknikariak bidelagun izango gaituzte ekimena eraginkortasunez garatzeko.
- Euskal Herri osoan ekimena ondo garatzeko elkarlana eta koordinazioa hasieratik ondo diseinatzea maila desberdinetan:
 - Maila orokorreko erakundeak: Eusko Jurlaritzza, Nafarroako Gobernua, Aldundiak, Topagunea, Unibertsitateak...
 - Lurralde mailako lan-mahaiak
 - Tokiko lan-mahaiak

TALDEAN AUKERATUTAKO EKARPENAK

Ekimenaren transmisio eta koordinazio-lana hasieratik ondo diseinatu behar da:

- Tokian tokiko arduradun politikoen inplikazioa bermatzeko.
- Ekimena Euskal Herria osoan garatzeko engranajea maila desberdinetan zehazteko:
 - Maila orokorreko erakundeak (Eusko Jurlaritzza, Nafarroako Gobernua, Aldundiak, Unibertsitateak...).
 - Lurralde mailako lan-mahaiak.
 - Tokian tokiko lan-mahaiak.

Pedagogia-lan on bat egitea gakoa izango da ekimenak eskaintzen dituen aukerak behar bezala baliatzeko:

- Hizkuntza-jokaera koherenteak aktibatuzko.
- Norbanakoen borondatea eta neurri sozialak elkarren osagarri bihurtzeko.
- Euskaldunak sartzeko.
- Herritar guztiengana heltzeko, baita normalean iristen ez garen horietara ere.
- Behar den lekuetan elkarlanerako zubiak eraiki edo indartzeko (aurrera begira ere euskararen normalizazio-prozesuan baliagarriak izango zaizkigun zubiak).
- ...

13.TALDEA: **1. SOLAIRUA** (UISTIN GELA)

Bakarka egindako ekarpenak

Hiru taldetan sailkatu genituen bakarka egindako ekarpenak:

Proiektua nori zuzendua?

- Erdaldunak erakartzeko eta konzientziazteko lan eta ahalegin berezia egitea
- Erdaldunak erakarri (indar gehiago).
- Proiektu honetan non ikusten ditugu euskaraz ondo jakin bai, baina batez ere erdaraz bizi diren herritarrak? Zein da euskaldun ez aktiboen lekua? Asko dira (gehiegi) tipologia hori mimoz ez zaintzeko.



- Euskara alorretik haratagoko erreferente eta eragileen inplikazioa.
- Proiektua nola egokituko da ingurune euskaldunetara (arnasguneak) "belarriprest" eta "ahobizien" komunikazioa egiterakoan? Konpromiso maila kontuan hartzea hizkuntza gaitasunaren ordez.
- Herrien norbanakotasuna kontuan hartu eta proiektua ez dadila izan berdintzailea, bestela porroterako bidea hartuko da.
- Eredugarritasuna landu HPS eta Topagunearen aldetik. Gizarte hobeago baten ideiarekin lotu.

Proiektuaren gidaritza eta elkarlana nola?

- Konkrezio gehiago behar da. Nola zehaztuko da egitasmoa? nork? ze forotan?
- Baliabideen aurreikuspena, batez ere giza baliabideak eta ekonomikoak.
- Egitasmo honetan denok elkarrekin parte har dezagun saiakera egitea.
- 2018 bitartean eman beharreko urratsen kronograma. HPSren babes eta laguntza zelan gauzatu den.
- Baliabideak: aplikazio informatiko bat norbanakoen erregistroa egiteko eta jarraipenerako.
- Konkrezioa erantsi behar zaio proposamenari: zer, noiz, nola... nork egingo du? Hasteko epea luzeegia da, benetan uste badugu egin behar dela, lehenago egin behar da.
- Erakunde guztiek konpromisoa hartzeko saiakera egitea oso garrantzitsua iruditzen zait, denok elkarrekin egitea.
- Euskal Herri mailakoa izatea eta herri guztietan aldi berean egitea.
- Komunikazio zuzena Eusko Jaurlaritzatik erakundeei (animatzeko, ekimen honen berri emateko eta laguntzeko).
- Ezin da herrigintzaren gain lanaren karga guztia erori. Ziurtatu behar da administrazioak baliabideak jarraiz gain, bestelako ardurak ere hartuko dituela (pertsonek, erakunde... erreferenteen inplikazioa lortzea, adibidez).
- Egitasmo honetan denok elkarrekin parte har dezagun saiakera egitea.
- Epe luzeago egitasmoa izatea, ez izatea kanpaina hutsa eta laburra.

Diskurtsoa, komunikazioa, formazioa

- Komunikazioan eta sentsibilizazioan indarra jartzea. Guk ezagutzen ditugu egitasmoak (orain arte egindakoak), baina gizartearen gehiengoak ez. Portaerak nola aldatu: formazioa, prestakuntza.
- Diskurtso egokiak sortu eta partekatu. Heziketa/lanketa fase batekin, geure egiteko estilo berri hau.
- Inguru euskaldunenetan ahobiziaz aktibatzeak izan beharko luke pisu gehiago. Proiektua egokitu eta diskurtsoa ere bai.
- Komunikazioa erakargarria, modernoa eta desberdina.
- Euskaldun pasiboak erakarri.
- Herritar guztiengan ilusioa pizteko komunikazio eraginkorra egitea, inor baztertuta senti ez dadin.
- Gizarte, norbanakoak aktibatze baliabideak. Norbanakoak eta gizarte prestatzeko baliabide posibleak ezagutzea.
- Marka zabala, txapel bakarra, urtero errepikatzen. Baietz 11 egun elkarrekin mugatuegia da
- Zabaltzeko erabiliko den modua, mezua, diskurtsoa erakargarria izatea.
- Komunikatzeko garaian herritarrei azpimarratzea sinplea dela (ez dituela ekarriko bilera asko edo denbora asko eskaini behar izatea).
- Arduradun politikoekin lanketa berezia egitea, egitasmoak oinarrian dituen ideien inguruan: jarrerak, jarduteko moduak, gizartean zilegitasuna emateko moduak...
- Egiteko modu berriak: emozioak eragingo dituenak.

TALDEAN AUKERATUTAKO EKARPENAK

Proiektua nori zuzendua?

Diskurtsoa oso ondo landu behar da, eremu guztietara egokitua: tipologia guztiak kontuan hartuta: euskaldunaz aparte, ulertzen ez dutenak; euskaldunak izan, baina erabiltzen ez dutenak, ahobiziarako bidea eginez; ingurune euskaldunetako tipologia ere kontuan hartuz... Bultzatzaileak: euskalgintzako ez den jendea ere izatea.

Proiektuaren gidaritza eta elkarlana nola?

Konkrezioa erantsi behar zaio proposamenari, baina nork egingo du hori? Nola ziurtatuko dugu Euskal Herri osoko entitate guztiek hartuko dutela parte? Nola egokituko da errealtate soziolinguistiko ezberdinetara, bereziki arnasguneetara? Euskal Herri mailako ekimena izanik eta sustatzaileen artean Eusko Jaurlaritza egonik, bere ardura beharko luke izan erakundearen eta erreferenteen parte hartzea bultzatu eta ziurtatzea (NEG, Iparraldeko Elkargoa, udalak, pertsona eta enpresa erreferenteak...).



Diskurtsoa, komunikazioa, formazioa
Gizartea ilusionatu behar da ideia honekin: proiektu hau burututa denok hobeto biziko gara eta denok irabaziko dugu herri moduan.

14.TALDEA: 4. SOLAIRUA (SALTSATE GELA)

Bakarka egindako ekarpenak

Komunikazioaren ingurukoak:

- Erdaldunekin asko landu. Komunikazioa, ekintzak, atxikimendua. Euskaratik urrun daudenak erakarri, se-duzitu. Vascoak aktibatu
- Batzen gaituzten elementuak/faktoreak bilatu eta landu
- Metodologia edo bideorri zehatz bat diseinatzea euskaratik urrun dauden sektoreak eragileak (aldundiak, sindikatuak) egitasmoari BENETAKO BABESA eman diezaioten
- Lidergo sendoa eta hurbilekoa sarritan komunikabideetan azalduko dena.
- Ahobiziak erakarri eta mantentzea ere luzea da eta saiakera asko daude.

Nolaren eta rolaren ingurukoak:

- Proiektuaren parte hartzerik ez dutenentzat (gutxieneko ulermena ez dutenentzat) komunikazio plana
- 2018ko ekintza burutu ahal izateko gutxieneko helburuak denik garbi edukitzea: hiriburu guztiak.
- Erakundeekiko laguntza: parte-hartzea, koherentzia. Ondo zehaztu benetako konpromisoa bermatzeko
- Lan esparruak/funtzioak ongi definitu eta baliabideak jarri.
- Baliabideak zehaztasunei begira
- Egitasmo haien sustapenerako udalarentzat diru laguntza lerro bat ireki tokian tokiko egitasmoak bidera-tzeko
- 11 egun horietan gera ez dadin, LANKETA egin komunikazioan eta pedagogian egingo den bezala.
- Parekidetasuna ere kontuan hartzea dinamika honetan guztian.
- 2018 bitartean beste mugarri edo helburu zehatzagoak zehaztu. 2017 azaroa/abendurako zer?
- Dinamika testeatu talde txikietan hutsegiteak antzeman eta konponbideak bilatzeko
- Hasieratik, neurri batzuk hartzeko prest dauden erakunde/eragileak lan-mahaian parte hartzeko bidea jo-rratu, kanpaina hutsa ez dela erakusteko.
- Prozesuari garrantzia ematea. Egiteko modu berri hau elikatzea jenderaren ekarpenak jaso. Elkarlan osoa eta benetakoa burutzea.
- Prozesu osoan zehar (garaiko lanketa, komunikazioa barne) parte hartzea sustatze aldera
- Hasieratik partaide zerrendarekin asmatu (gizarte eragileak)
- Planifikazioa garbi izan behar da. EZin dugu bidea bakarrik ibili. Gidaritza garbi ezagutu behar dugu. Guk herrian eragiteko, guk herritarrek astintzeko geure baliabideak, plangintzak...eskaini beharko zaizkigu. Pro-zesuari garrantzia ematea

TALDEAN AUKERATUTAKO EKARPENAK

Arreta prozesuan jartzea: mugarri batzuk zehaztea, rolak definitzea, partaide, sustatzai-leen...ahalduntzea, guztion arteko (instituzioak eta herri-mugimendua) konfian-tzan/elkarzaintzan arreta berezia jartzea.

Komunikazio estrategiak zehaztu parte hartzaileekin, bi noranzkoan doana, xede taldeak defini-tuta, eta inor bazterrean utzi gabe, bereziki erdaldunak.

15. TALDEA: 2. SOLAIRUA (ZUMAU GELA)

Bakarka egindako ekarpenak

Ekarpen orokorrak

- Helburu lorgarriak jarri
- Protagonista edo parte hartzaile kopurua mugatu, ez gehiegi zabaldu diluitu ez dadin
- Euskara teknikarien zubilana gizartearen eta erakundearen artean

Norekin



- Herri askotan euskalgintza aktibatuta eta antolatuta ez dagoenez, Administrazioak akuilu lana egin beharko du, eta baliabideak eman:
 - Ahobizi izateko (euskaldun aktiboenei): TELP tailerrak.
 - Belarri prest izateko (ulermen maila dutenei): bestelako tailerrak.
 - Ulermen maila iristeko ezer ez dakitenei: berariazko ikastaroak.

Nola

- Orokorra: erakundeak izan beharrear, erakunde txiki edo euskaratik hurbilago daudenak (euskara plana dutenak).
- Orokorra: erakundeak (lehendik euskara lanketarik izan ez dutenak barne).
- ETB2: erdaldunekin pedagogia egin, Pásalo programan adibidez.

Noiz

- Denboran urrunegi dago: euskararen egunarekin bukatu nahi delako. 2018ko udaberrian egin daiteke.
- Egun horietan Administrazioak "zutabe bakarra" (euskara hutsez) egitea.